



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko otsailaren 26a

32. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lan erreforma indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da Langileen Estatutuko 52. artikulua aldaketa ez dezan aplikatu. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (22. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, “Asociación de Cazadores Deportivos de Tudela” elkarteari esleitutako Montes del Cierzo eta Monte Alto ehiza-barrutien kudeaketari eta “Asociación local de cazadores y pescadores deportivos de Tudela” elkarteari ezarritako zehapena betetzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen.

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETA**

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Xedea eta aplikazio eremua.

Egungo testuaren orde, honakoa dioena jar-tzea:

“Foru lege honen xedea da kultur mezenasgoa sustatzea, hari aplikatzekoak zaizkion pizgarri fiskalak erregulatzea, mezenasgoa Nafarroako Foru Komunitatearen tributu-araudiaren pean dauden pertsona fisiko edo juridikoek egiten dutenean, eta gizarte zibilak kultur jarduerarekin lotura handi-goa izan dezala lortzea.”

Zioak: Kontua da hobeki zehaztea bilatzen diren hiru helburuak: mezenasgoa sustatzea, pizgarri fiskalak erregulatzea eta gizarte zibilaren eta kultur jardueraren arteko lotura handi-goa lortzea.

**2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK**

2. ZUZENKETA

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

2. artikulua 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“1. Foru lege honen ondorioetarako, kultur mezenasgoa da sektore pribatuak parte hartzea kultur jarduerak edo proiektuak egiten.”

Zioak: Lege proiektua egokitu behar izatea abenduaren 23ko 49/2002 Legearen edukiarri. Lege horrek, izan ere, kultur mezenasgoaren kontzeptu zabalagoa aplikatzen du.

2. artikulua egokitzea lege proiektuak berak, zioen azalpeneko zazpigarren lerrokadan jasota dagoenera.

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. artikulua. Kultur mezenasgoaren kontzeptua

1. Foru lege honen ondorioetarako, kultur mezenasgoa da sektore pribatuak parte hartzea irabazi asmorik gabeko entitateek edo 4. artikuluko f) letran aipatutako pertsona fisikoek eginiko kultur proiektu edo jarduerak egiten, betiere xede dutenean kultur proiektu edo jarduerak egitea.

Zioak: Gure ustez, mezenasgotzat jo beharra dago irabazi asmorik gabeko kultur entitateei kul-

tur jarduera bat egiteko emaniko laguntza pribatu oro.

4. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Kultur mezenasgoaren kontzeptua, I. kapituluaren baitago, 2. artikuluko 1. idatz-zatian, honela idatzita geratuko da:

“1. Foru lege honen ondorioetarako, kultur mezenasgoa da sektore pribatuaren partaidetza interes sozialeko kultur proiektuak edo jarduerak egiterakoan.”

Zioak: Gardentasuna lortze aldera, ez du Nafarroako Gobernuak izan behar erabakiko duena kultur proiektu batek, bere interes soziala dela eta, mezenasgoaren onura izan ote dezakeen.

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Kultur mezenasgoaren kontzeptua.

Egungo testuaren orde, honakoa dioena jar-tzea:

“a) Zinematografia, ikus-entzunezko arteak eta multimedia arteak.

b) Arte eszenikoak, musika, dantza, antzerkia eta zirkoa.

c) Ikusizko arteak: arte plastikoak edo arte ederrak, argazkilaritza eta diseinua.

d) Artearen edo/eta kulturaren arloko beste edozein jarduera.

e) Liburua eta irakurketa, literatur argitalpenak eta argitalpen fonografiko eta zinematografikoak, edozein formatutan edo euskarritan.

f) Egungo ezagutzaren gizartean dauden produktu kulturalen aniztasunetik sortutako ikerketa-prozesu eta -proiektuak.

g) Nafarroako kultur ondarearen gaineko ikerketa, dokumentazioa, kontserbazioa, zaharberritzea, berreskuratzea, haren zabalkundea eta sustapena egitea.”

Zioak: Kontua da esparru batzuk hobeki zehaztea eta kultur proiektuekin lotutako ikerketa-proiektuekin lotutakoa gehitzea.

6. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Kultur mezenasgoaren kontzeptua,

Kultur mezenasgoaren kontzeptuan, I. kapituluaren baitago, 2. artikuluko 2. idatz-zatiko f) letra, honela idatzita geratuko da:

“f) Nafarroako kultur ondarearen –materialaren eta ez-materialaren– gaineko ikerketa, dokumentazioa, kontserbazioa, zaharberritzea, berreskuratzea, haren zabalkundea eta sustapena egitea, Nafarroako hizkuntza aniztasunari bereziki erreparatuta.”

Zioak: Nafarroako kultur ondareari buruz hitz egiterakoan, kontuan hartu beharra dago kultur ondare horrek, aipatutako alderdi guztiez gainera, kultur errepertorio ez-material aberatsa daukala, zeina zuzenean baitago lotuta Nafarroaren bi hizkuntzen –euskararen eta gaztelaniaren– ahozko tradizioarekin. Hura ere interes sozialekotzat deklaratu daitezkeen proiektu eta jardueren atal bat izan daiteke.”

7. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

2.2 artikulua f) letra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“f) Nafarroako kultur ondarearen –materialaren eta ez-materialaren– gaineko ikerketa, dokumentazioa, kontserbazioa, zaharberritzea, berreskuratzea, haren zabalkundea eta sustapena egitea.”

Zioak: Zehaztea ezen ondarearen barruan ondare materiala eta ez-materiala (esate baterako, euskara) sartzen direla.

8. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

2. artikulua 2. idatz-zatiari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“g) Nafarroako folklorea eta herri tradizioak, bereziki herri musika (jota, aurorak eta euskarazko herri kantak) eta herri askotako dantza tradizionalak (esate baterako, jota, larrain dantza, bolanteak, mutil dantza edo ezpata dantza)”

Zioak: Garrantzitsua da proiektuan Nafarroako folklorea eta herri tradizioak sartzea, haiek zain-tzen laguntze aldera.

**3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETA****9. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

3. artikuluko c) letra kentzea.

Zioak: Lankidetzaren hitzarmenak arautzen dituen artikulua kentzea proposatzen da. Horrenbestez, ez da bidezkoa haiek 3. artikuluko aipamenean sartzea.

**4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK****10. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“4. artikulua. Kultur mezenasgoaren onuradun diren entitateak.

Foru lege honen ondorioetarako, honakoak dira entitate onuradunak:

a) Helbide fiskala Nafarroan duten irabazi-asmorik gabeko entitateak.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, bai eta haren menpeko erakunde autonomoak eta fundazio publikoak ere”

Zioak: Ez da beharrezkoa entitate onuradunen xehetasun gehiago ematea.

11. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

“4. artikuluko b) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kultur mezenasgoak esparru pribatuan dauzkan onurak indartzea.

12. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Kultur mezenasgoaren onuradun diren pertsona eta entitateak.

b) Letrari beste testu bat ematea, honakoa dioena:

“Nafarroako Foru Komunitateak eta Nafarroako toki entitateak, bai eta haien menpeko erakunde autonomo eta fundazio publikoak ere.

Zioak: Hasierako testua hobetzen du, errepika-korra baita.

13. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA PATXI LEUZA GARCÍA
JAUNEK AURKEZTUA**

4. artikulua d) letra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“d) Beste autonomia erkidego batzuetan eta atzerrian egoitza duten Nafarroako txokoak, zentroak, etxeak eta euskal etxeak, bai eta entitate horien federazioak ere”

Zioak: Nafarroako dibertsitate aberats eta positiboaren isla gisa.

14. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa. 4. artikuluko e) letra kentzen da.

Zioak: Gure ustez, beste entitate erlijioso eta ez-erlijioso batzuk baztertzeko dira.

**5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK****15. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Bigarren kapituluko 5., 6. eta 7. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 2. artikuluar aurkeztutako zuzenketari egokitzea eta harekin koherenteak izatea.

16. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA PATXI LEUZA GARCÍA
JAUNEK AURKEZTUA**

5. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 6. artikuluan prozedura bat arautzen den neurrian, onuradunek eskatuta, interes sozialeko deklarazioa egiteko –deklarazio horrek Kultur Kontseiluaren proposamena behar du–, badirudi arrazoizkoa dela Gobernuaren ekimenek bide bera jarraitzea.

17. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Interes sozialekotzat hartzea.

Testu berriak honakoa esanen du:

“Honako kultur proiektu edo jarduera hauek interes sozialekotzat hartuko dira, berariazko deklarazioa egin gabe:

1. Administrazio publikoetako kulturaren arloko departamentu eskudunak, bai eta haien menpeko erakunde autonomoak eta fundazio publikoak ere.

2. Administrazio publikoetako kultur departamentu horiek hitzarmen edo diru-laguntza bidez sustatu edo laguntzen dituenak, 4. artikuluan aurreikusitako pertsona edo entitate onuradunek eginak badira.

3. Nafarroan kokatutako unibertsitate publikoek hitzarmen edo diru-laguntza bidez sustatu edo laguntzen dituztenak, 4. artikuluan aurreikusitako pertsona edo entitate onuradunek eginak badira.”

Zioak: Kontua da foru administrazioa ez ezik, administrazio publiko guztietako kultura departamentuak ere sartzea.

18. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa. 5. artikuluko 2. idatz-zatia kentzen da.

Zioak: Proiektuak hautatzerakoan, diskrezionalitate elementu bat sartzen da.

**6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK****19. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

6. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“6. artikulua. “Interes sozialekotzat deklaratzeko entitate onuradunek eskatuta:

1. Entitate onuradunek beraien kultur proiektu edo jardueren interes soziala deklaratzeko eskatu ahal izanen dute ezartzen den prozedurari jarraituz.

2. Mezenasgoaren Batzordea sortzen da. Kulturaren eta kultura politiken arloan aitortutako izena duten pertsonen osatuko dute. Batzordeak bost kide izanen ditu: bi kulturaren arloko eskumena duen departamentuak proposatuak, eta beste hirurak Nafarroako Parlamentuak proposatuak.

3. Mezenasgoaren Batzordeak ebaluatuko ditu interes sozialeko deklaraziorako eskaerak, irizpide hauek kontuan hartuz:

a) Kultur jardueren garrantzia eta eragin soziala.

b) Nafarroaren kultur ondarea, materiala eta ez-materiala, ikertzeko, zaintzeko eta zabaltzeko jardueren eragina, bereziki erreparatuz haren hizkuntza-aniztasunari.

c) Sorkuntza artistikoaren sustapenean eta sortzaileentzako laguntzan duen eragina.

d) Arte eta kultura arloko prestakuntzari dagokionez duen balioa eta interesa.

e) Herritarren parte-hartzea eta ikusleriak sortzea sustatzeko duen balioa eta interesa.

f) Nafarroako Foru Komunitateko arte eta kultur balioak kanpoan sustatzeari dagokionez duen balioa eta interesa.

g) Arteen zabalkundean laguntzen duten kultur inbertsioak egiteari dagokionez duen balioa eta interesa.

h) Kultur esparruan ikerketarako jarrera izatea, arte lengoia berriak jorratzea eta izaera berritzailea.

i) Nafarroako Foru Komunitateko kulturaren kontserbazioarekin, sustapenarekin eta garapenarekin zerikusia duen beste edozein irizpide.

4. Batzordearen erabakiak lotesleak izanen dira. Kulturaren arloan eskuduna den departamentuak, batzordearen irizpideei jarraituz, interes sozialaren deklarazioa eginen du.”

Zioak: Alde batetik 2. idatz-zatiko b) letra aldatzen da jatorrizko testuan, eta berariaz txertatzen da ondare ez-materiala, haren garrantzia eta aurre egin behar dion desagertze-arrisku handia direla eta, bereziki, baina ez soilik, euskaraz adierazten denari dagokionez.

Bestalde, prozedura aldatu eta Mezenasgoaren Batzordea sortzen da. Batzorde hori interes sozialaren deklarazioaz arduratuko da. Kultur jarduerarako hain garrantzitsua den jarduera bati gardentasuna eman nahian, izendapen prozedura bat ezartzen da, non bai gobernuak, bai parlamentuak parte hartuko duten. Halaber, administrazioaren diskrezionalitate gutxitu nahi da, eta batzordearen proposamenen izaera loteslea ezarri nahi da.

20. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Interes sozialekotzat deklaratzeko onuradunek eskatuta.

Egungo testuaren orde, honakoa dioena jar-tzea:

“1. Pertsona eta entitate onuradunek beraien kultur proiektu edo jardueren interes soziala deklaratzeko eskatu ahal izanen dute ezartzen den prozedurari jarraikiz. Nolanahi ere, prozedura horrek aldi berean zorrotza eta malgua izan behar du, halako moduz non gardentasuna eta objektibotasuna bermatuko dituen.

2. Nafarroako Kultura Kontseiluak ebaluatuko ditu interes sozialeko deklaraziorako eskaerak, irizpide hauen arabera:

a) Kultur jardueren garrantzia eta eragin soziala.

b) Jardueren kultur ondarearen ikerketan, kontserbazioan eta zabalkundean duten eragina.

c) Sorkuntza artistikoaren sustapenean eta sortzaile berrientzako laguntzan duen eragina.

d) Arte eta kultura arloko prestakuntzari dagokionez duen balioa eta interesa.

e) Herritarren parte-hartzea eta ikusleriak sortzea sustatzeko duen balioa eta interesa, IKTei arreta berezia eskainita.

f) Nafarroako Foru Komunitateko arte eta kultur balioak kanpoan sustatzeari dagokionez duen balioa eta interesa.

g) Arteen eta zientzien zabalkundean laguntzen duten kultur inbertsioak egiteari dagokionez duen balioa eta interesa.

h) Kulturaren esparruko ikerketarako eta lengoia berritzaileak jorratzeko jarrera.

i) Nafarroako Foru Komunitateko kulturaren kontserbazioarekin, sustapenarekin eta garapenarekin zerikusia duen beste edozein irizpide.”

Zioak: Kontua da ahal den guztian zehaztea eta objektibatzea kultur proiektuen edo jardueren interes soziala deklaratzeko erabiltzen diren irizpideak.

21. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gaztelaniazko testuko 6. artikuluko 1.e) idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“e) Valor e interés en el fomento de la participación de la ciudadanía y en la creación de públicos.”

Zioak: Testuan lengoia inklusiboa erabiltzeko ahalegina egin den arren, zuzenketa honen bidez

testua hobetu daiteke. Aldaketa zeran datza: “la ciudadanía” erabiltzea “los ciudadanos” erabiltzearen ordean.

22. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa. 6. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak kentzen dira.

Zioak: Aurreko artikuluan kultur entitate onuradunak definitu genituen.

23. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

6. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“b) Nafarroaren kultur ondarea, materiala eta ez-materiala, ikertzeko, zaintzeko eta zabaltzeko jardueren eragina, bereziki erreparatuz haren hizkuntza-aniztasunari.”

Zioak: Nafarroako ondare ez-material oso aberatsa dauka, bai gaztelaniaz, bai euskaraz, zeina, dauzkan ezaugarriak direla-eta, mehatxatua baitago ondare materiala baino. Hori dela eta, uste dugu garrantzitsua dela hura berariaz aipatzea. Zuzenketa hau 2.2.f) artikuluari aurkeztutakotik heldu da.

24. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

6.2. artikulua b) letra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“b) Nafarroaren kultur ondarea, materiala eta ez-materiala, ikertzeko, zaintzeko eta zabaltzeko jardueren eragina, azken horren barruan euskarari edo lingua navarrorumi erreparatuta.”

Zioak: Beste behin azpimarratzea Nafarroako kultur ondare material zein ez-materialaren dibertsitatean, eta ondare ez-materialaren barruan euskaraz berariaz aipatzea.

25. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“3. Interes sozialeko deklaraziorako eskaera ebaluatu ondoren, Nafarroako Kultura Kontseiluak deklarazioa emateko edo ukatzeko proposamena igorriko dio kultur arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiko titularrari, eta honek ebazpena emanen du proposamen horrekin bat.

Zioak: Testuan lengoaia inklusiboa erabiltzeko ahalegina egin den arren, zuzenketa honen bidez testua hobetu daiteke. Aldaketa ondoko honetan datza: “kultur arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiko titularra” aipatzea “kultur arloko zuzendari nagusia” aipatzean.

26. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

6. artikuluari beste letra bat, j) letra, gehitzea. Honako testua izanen luke:

“j) Oinarrizko irizpide gisa, proiektu edo jardueraren aurrekontuaren eta artikuluko honetako idatz-zati honen aurreko leren arabera sortutako eraginaren arteko erlazioa.”

Zioak: Artikulu hau idatzita dagoen bezala, proiektuaren edo jardueraren tamaina aldagai garrantzitsua izan daiteke, zeren eta, alde aurretik esanda, proiektu jakinetan garrantzitsuak izan daitezkeen beste alderdi batzuk alde batera utzita, zenbat eta handiagoa izan orduan eta eragin handiagoa edukiko du. Hori dela eta, arrazoizkoa dirudi eragina eta aurrekontua lotuko dituen oinarrizko irizpide bat sartzea, ekimen txikiei pizgarriak ez kentzeko; hain zuzen ere, kontrakoa behar baita.

27. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

6. artikuluari idatz-zati berri bat, 4.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“4. Ezezkoa emateko ebazpenik egonez gero, motibatuta izan behar du, 2. idatz-zatian ezarritako irizpideei erreferentzia eginez. Halaber, ezezko ebazpena emateko arrazoa izan ahalko da pertsona nahiz entitate onuradun beraren aurrez interes sozialekotasat deklaraturako proiektu edo jarduerari buruzko betebeharrak formalen onuraduna den pertsonaren edo entitate onuradunaren ez betetzea. Azaldutako argudioak ikusita, pertsona edo entitate onuradunak bere proiektu edo jarduerari berraztertu eta interes sozialeko deklarazioa berriz eskatu ahalko du”

Zioak: Kultur jarduerari erraztu eta dinamizatzeko, ezezko ebazpenen kasuan, egindako proposamenak berraztertzeko aukera erraztu behar da, horretarako ebazpena oinarritzeko erabili diren argudioak emanez.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

28. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

8. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Foru lege honetan aurreikusitako kenkariak eta murrizketak egiteko eskubidea emanen dute *inter vivos* dohaintzek, ezeztazekin, soil eta hutsak direnek, 4. artikuluan aipatzen diren pertsonen eta entitateen alde eginak badira, kultur proiektu edo jarduerak gauzatzeko”

Zioak: 2. artikuluari aurkeztutako zuzenketari egokitzea eta harekin koherentea izatea.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

29. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Foru lege honetan aurreikusitako kenkariak eta murrizketak egiteko eskubidea ematen dute interes kultureko ondasunen, ondasun inbentariatuak, tokiko garrantzia duten ondasunen edo kalitate bermatuko artelanen erabilera maileguak edo komodatuak, bai eta kultur proiektu edo jarduerak egiteko erabiltzen diren lokalen ere”

Zioak: 2. artikuluari aurkeztutako zuzenketari egokitzea eta harekin koherentea izatea.

13. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

30. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa: 13. artikularen 2.d) idatz-zatia aldatu, eta honela geratu da idatzita:

“d) Erabilera mailegu edo komodatuaren balorazioaren zuzenketa.”

Zioak: Zuzenketa tekniko bat da, alde batetik balorazioaren zuzenketa erreferentzia egin diezaion Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Balorazio Batzarrak egindakoari (erabilera mailegua edo komodatu Nafarroako kultur ondarearen ondasunei buruzkoak direnean), eta, bestetik, lokalen erabilera mailegua edo komodatu denean; kasu horretan, izan ere, balorazioa katastrobalioaren 100eko 4koa izanen da. Testu berriak bi kasuak hartzen ditu.

14. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

31. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa. 14. artikulua kentzen da.

Zioak: Zerikusia du babes jarduerekin, zeinak mezenasgoari buruzko lege baten esparrutik kanpo utzi behar baitira.

32. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“14. artikulua. Lankidetzaren hitzarmenak mezenasgo-jardueren onuradun izan diren proiektu edo jardueretan, foru lege honetan ezarritako terminoetan.

1. Kultur proiektu edo jardueren arloko lankidetzaz hitzarmenaren ezaugarriak hauexek dira: 4. artikulua aipatzen dituen pertsona edo entitateek izenpetzen dituzte, kultur proiektu edo jarduera bat egiteko diru-laguntza baten truke, edo balorazio ekonomikoa izan dezakeen laguntza baten truke, eta bertan konpromisoa hartzen dute, idatziz, kolaboratzaileak proiektu edo jarduera horietan parte hartu duela zabaltzeko edozein bitarteko erabiliz.

Zioak: 2. artikuluari aurkeztutako zuzenketari egokitzea eta harekin koherentea izatea.

16. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

33. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“16. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek eskubidea izanen dute zergaren kuotan kenketa egiteko, 9. eta 12. artikuluetan aipatzen diren dohaintzen era erabilera maileguren balorazioko lehen 300 euroen 100eko 50en adinakoa. 300 eurotik gorako zenbatekoek 100eko 25eko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute. 300 euroko muga hori subjektu pasibo bakoitzeko eta zergaldiko aplikatuko da.

Kenkarien oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 64. artikuluko 1. idatziztatian aipatzen den mugaren ondorioetarako konstatuko da.”

Zioak: Administrazio Publikoak ahalegin bat egin beharko du mezenasgorako pizgarriak emateko, betiere jokabide altruistaren jatorrizko zentzua galarazi gabe. 300 eurotik gorako ekarpenerako, fundazioentzako dohaintzetarako araubide indardunari eusten zaio.

34. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak

Artikuluko 1. lerrokadaren ordezkari honako testua jartzea:

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek eskubidea izanen dute zergaren kuotan kenketa egiteko, dohaintzen, erabilera maileguren eta, lankidetzaz hitzarmenaren ondorioz, ordaindutako kopuruen eta egindako gastuen (9., 12. eta 14. artikuluetan aipatzen direnak, hurrenez hurren) balorazioko lehen 150 euroen 90en adinakoa. 150 eurotik gorako zenbatekoek 100eko 40ko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute. 150 euroko muga hori subjektu pasibo bakoitzeko eta zergaldiko aplikatuko da”

Zioak: Neurri hau pizgarri argi bat da gizartearen identifikatuta sentitzen den kultur proiektuetarako dohaintzak emateko. Eredu frantsesaren arrakastak zerikusi handia du neurri honekin, hautatutako zergari buruz hitz egiteko aukera ematen duen neurrian.

Foru Ogasunarentzako kostuak, egindako simulazioen ondoren, onargarri gertatzen dira.

Espainiako Gobernuak erabiltzen dituen zirriborroak antzeko parametroetan mugitzen dira. Hori dela eta, ez litzateke logikoa izanen Foru Erkidegoak kopuru murriztaileagoak planteatzea. Horrek aukera emanen lioke Espainiako aitzindaria izateko kulturaren arloan.

35. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

16. artikuluko lehenengo lerrokada aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek eskubidea izanen dute zergaren kuotan kenketa egiteko, dohaintzen, erabilera maileguren eta, lankidetzaz hitzarmenaren ondorioz, ordaindutako kopuruen eta egindako gastuen (9., 12. eta 14. artikuluetan aipatzen direnak, hurrenez hurren) balorazioko lehen 100 euroen 100eko 100en adinakoa eta 300 eurora bitarte 100eko 50en adinakoa. 300 eurotik gorako zenbatekoek 100eko 40ko kenkaria egiteko eskubidea izanen

dute. 300 euroko muga hori subjektu pasibo bakoitzeko eta zergaldiko aplikatuko da”

Zioak: Legean mikromezenasgoaren aukera sartzea eta aukera hori bultzatzea. Izan ere pizgarri fiskal handiagoak ematen zaizkio.

36. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Testu bat gehitzeko zuzenketa. Beste lerrokada bat sortzen da 16 artikuluan:

“Pertsona fisikoek PFEZaren kuotaren % 90eko kenkaria izanen dute, dohaintzaren lehengo 150 euroan.

Zioak: Kultur arloko mikrodoaintza bultzatzea.

17. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

37. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. artikulua aldatzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak.

b) letrari beste testu bat ematea. Honako testu hau izanen du:

“Horrez gain, eskubidea izanen dute zergaren kuota likidoan kenketa egiteko, dohaintzen, erabilerara maileguren eta, lankidetzaren hitzarmenen ondorioz, ordaindutako kopuruen (9., 12. eta 14. artikuluetan aipatzen direnak, hurrenez hurren) balorazioko lehen 1000 euroen ehuneko 30ekoa. 1000 eurotik gorako zenbatekoek kuota likidoan 100eko 20ko kenkaria egiteko eskubidea izanen dute. 1000 euroko muga hori subjektu pasibo bakoitzeko eta zergaldiko aplikatuko da”

Zioak: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboari buruz adierazitako arrazoi berak.

38. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

17. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“b) Horrez gain, eskubidea izanen dute zergaren kuota likidoan kenketa egiteko, 9. eta 12. artikuluetan aipatzen diren dohaintzei eta maileguei ematen zaien balorazioaren 100eko 20koa.

Zioak: Onura fiskal bikoitza da. Gure ustez, kuotako kenkariak ez du izan behar 100eko 20tik gorakoa, edozein dela ere haren zenbatekoa. Gainera, koherenteagoa da “konpromiso sozialeko zigilua” deitutakoan ezarritakoarekin.

18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

39. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MANU AYERDI OLAIZOLA

ETA PATXI LEUZA GARCÍA

JAUNEK AURKEZTUA

18.1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

18. artikulua. Beste zerga onura batzuk

“1. Dohaintza-emailearen errenta zergapetzen duen pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta sozietateen gaineko zerga ordaintzetik salbuesirik egonen dira 8. artikuluan aipatzen diren dohaintzak direla eta gertatzen diren ondare gehikuntzak eta errenta positiboak. Salbuesitako ondare gehikuntza edo errenta positibo horiek ez dira inolaz ere izanen 9. artikuluan aipatzen diren kenkarien eta murrizketen oinarriaren zati bat.

Zioak: Bermatu nahi dugu dohaintza-emaileak inolaz ere ezinen duela onurarik atera tributurik ordaindu gabeko gehikuntza edo errenta positibo baten gainean kalkulaturako kenkari batetik. Lege proiektuko 9.1.b) artikulua berak jada esaten du kalkulatzeko araua kontabilitate-balioa izanen dela, baina esaten du, halaber, ezen, halakorik ezean, ondarearen gaineko zergari buruzko arautan zehaztutako balioa erabiliko dela.

20. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK

40. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA PATXI LEUZA GARCÍA
JAUNEK AURKEZTUA

20. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua hone-
la geldituko litzateke:

“20. artikulua. Betebehar formalak.

Aurreko artikuluetan aurreikusitako onura fiska-
lak aplikatzeko baldintza izanen da pertsona edo
entitate onuradunek dohaintza-emaileari ematea,
dohaintza jasotzen duten unean, bai laguntzen
duen kultur proiektu edo jardueraren oroitidazkia,
bai proiektu edo jardueraren interes soziala
deklaratzeko duen ebazpena.

Pertsona edo entitate onuradunek dohaintzak,
erabilera maileguak edo lankidetzak hitzarmena
egiaz egin direla eta interes sozialaren deklarazioa
duten kultur proiektu edo jardueretarako egiaz era-
bili direla egiaztatu beharko dute, kasuan kasuko
ziurtagirien bidez. Eragin horietarako, emandako
egiaztagirien edukia jakinarazi beharko diote
Zerga Administrazioari, tributuen gaineko arauetan
ezarritako eredu eta epeekin.”

Zioak: Ezinezkoa da fede onez, interes
sozialekotzat deklaraturako kultur proiektuak bul-
tatzeko, dohaintza egiten dituzten pertsonak,
onura fiskalak aplikatu ahal izateko, pertsona edo
entitate onuradunek egiten dutenaren menpe ego-
tea. Legeak lortu nahi duen helbururako gutxi
laguntzen duen segurtasun eza eragiten du horrek.

41. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA

20. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa.

“a) Dohaintzak, erabilera maileguak edo
lankidetzak hitzarmena egiaz egin direla eta interes
sozialaren deklarazioa duten eta foru lege honetan
jasotako terminoetan mezenasgo jardueren onura-
dun izan diren kultur proiektu edo jardueretarako
egiaz erabili direla frogatzea, kasuan kasuko ziur-
tagirien bidez.”

Zioak: 2. artikuluari aurkeztutako zuzenketari
egokitzea eta harekin koherentea izatea.

42. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Testu bat gehitzeko zuzenketa. Artikulu berri
bat sortzen da.

“Artikulua. Kultur kontsumoarengatikoko kenkaria

a) Zergadunek pertsona fisikoen errentaren
gaineko zergaren kuota osoan kenkari bat aplikatu
ahalko dute. Kenkari hori izanen da Nafarroako
Foru Komunitateko lurraldean, kasuko ekitaldian
zehar, erregelamenduz zehazten diren kultur
ondasunak erosteko erabili dituzten diru-kopuruen
% 15a.

Zergadunak aplikatu ahalko duen kenkariaren
muga urtean 300 eurokoa izanen da.

Zioak: Kultur kontsumoa indartzea.

XEDAPENEI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK

43. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa. Lehen xedapen gehigarria
kentzea.

Zioak: Baztertzaila dela jotzen dugu.

44. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa. Lehen xedapen gehigarria
kentzea.

Zioak: Berarekin dakar legean bertan salbues-
peneko faktoreak eta, are arbitrariotasunekoak
ere, sartzea.

45. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Koherenteak izatea 2. artikuluari aurkez-
tutako zuzenketan mezenasgoari buruz ematen
den definizioarekin.

46. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Kultur mezenasgoaren arloko lehentasunezko jarduerak eta proiektuak.

1. idatz-zatian, "Foru lege bidez" hitzen ordez "Foru dekretu bidez" hitzak jartzea.

Zioak: Kontua da prozeduraren gerruntzea ez estutzea eta errazago egitea, urtearen hasieratik herritarrek ezagut dezaten kultur mezenasgorako lehentasunezko jarduera eta proiektuen zerrenda.

47. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Azken xedapenetan bigarrena kentzeko zuzenketa.

Zioak: 2. artikuluari aurkeztutako zuzenketari egokitzea eta harekin koherentea izatea.

48. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Mezenas izaera jendaurrean aitortzea.

Egungo testua honako honekin ordeztzea proposatzen dugu:

"Nafarroako Gobernuak behar diren tresnak ezarriko ditu mezenasgoaren praktika saritzeko, ekintza horien birbalorazio soziala lagunduz, ekimen horiei prestigioa eta ikusgarritasuna emanez eta publikoki aitortuz mezenasgoaren bitartez kulturaren alde egiten duten pertsona fisiko eta juridikoen lan filantropikoa."

Zioak: Kontua da lan filantropikoa publikoki aitortu ez ezik, ekimen horiek birbaloratzea eta haiei prestigioa eta ikusgarritasuna ematea.

49. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Bigarren xedapen gehigarriari esaldi bat gehitzeko zuzenketa.

"Nafarroako Gobernuak, nolahi ere, anonimotasuna bermatuko die kulturarako ematen duten laguntza publikoki ezagutzera eman nahi ez duten pertsoneri edo entitateei.

Zioak: Koherenteak izatea 2. artikuluari aurkeztutako zuzenketan mezenasgoari buruz ematen den definizioarekin.

50. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa. Hirugarren xedapen gehigarria kentzen da.

Zioak: Baztertzaila dela jotzen dugu.

51. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: 2. artikuluari aurkeztutako zuzenketari egokitzea eta harekin koherentea izatea.

52. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa. Hirugarren xedapen gehigarria kentzen da.

Zioak: Berarekin dakar legean bertan salbuespeneko faktoreak eta, are arbitrariotasunekoak ere, sartzea.

53. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa. Laugarren xedapen gehigarria kentzen da.

Zioak: Baztertzaila dela jotzen dugu.

54. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa. Laugarren xedapen gehigarria kentzen da.

Zioak: Kultur jardueraren finantzarizatzeak berekin dakar hartaz kanpoko faktore batzuk sartzea, hura aldaraz dezaketenak eta finantza-trafikoaren xede huts bilaka dezaketenak.

55. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA PATXI LEUZA GARCÍA
JAUNEK AURKEZTUA**

Laugarren xedapen gehigarriko 2. idatz-zatikoa a) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez du ematen orekatua denik salbuetsitatzat deklaratzeko lortutako etekinak, eta aldi berean, haiengatik onura fiskalak hartu ahal izatea, bereziki epe jakin batean funtsak lortzen dituen pertsona fisiko zein juridiko batentzat arriskurik ez duten finantza-produktuak direla ondoriozta daitekeen.

56. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Laugarren xedapen gehigarriko b) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: 2. artikuluar aurkeztutako zuzenketari egokitzea eta harekin koherentea izatea, eta b) letraren edukia bateraezina izatea mezenasgoaren espirituarekin.

57. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Bosgarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako Gobernuak aplikazio informatiko bat garatuko du kultur mezenasgoa errazteko, halako moduan non, Nafarroako Gobernuaren web orriaren bidez, modu elektronikoa dohain-

tzak egin ahal izanen baitira foru lege honetan jasotako terminoetan mezenasgoko dohaintzak jasotzen dituzten jarduerak edo proiektuak garatzen dituzten pertsona edo entitateentzat”

Zioak: 2. artikuluar aurkeztutako zuzenketari egokitzea eta harekin koherentea izatea.

58. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Bosgarren xedapen gehigarriari lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Plataformak sistema bat jarriko du, kasuko froga-agiria lortzeko bidea emanen duena. Froga-agiri horrek Nafarroako Ogasunean balioko du foru lege honetan aurreikusitako onurak lortzeko”

Zioak: Erraztasunak ematea foru legean aurreikusitako onura fiskalak aplikatzeko.

59. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarrena bis, gehitzeko zuzenketa. Mezenasgoaren aldeko kanpaina.

Hona testu berria:

“Herritarrei aipatutako legearen norainokoa eta hark dakartzan onura fiskalak ezagutzera emateko, Nafarroako Gobernuak, beharrezkotzat jotzen dituen bitartekoen bitartez, informazio kanpaina bat egingen du, hura onetsi ondoren”

Zioak: Espainiako panoraman berria izateak eta dakartzan kenkari fiskal garrantzitsuek justifikatzen dute Nafarroako Gobernuak informazio-kanpaina bat egin dezan.

60. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarrena ter, gehitzeko zuzenketa. Nafarroako Kultur Kontseiluaren eginkizun berriak.

Honako testua gehitzea:

“1. Nafarroako Kultur Kontseiluak Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoan eta Kultur Mezenasgoari buruzko Foru Lege honetan esleitzen zaiz-

kion zeregin eta eginkizun berriei aurre egin ahal izateko, legea onetsi eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak gaur egun kontseilu horrek daukan araudia egokituko du.

2. Nafarroako Kultur Kontseiluaren osaketa berriak bilatu behar du Nafarroan presente dauden sektore desberdinek parte hartu eta laguntza eman dezatela, eta Nafarroak duen aniztasun aberatsa ahal duen modu egokienean ordezkatu beharko du. Horretarako, bere kideen artean honakoak eduki beharko ditu: elkarte eta entitateetako ordezkariak, administrazioetako ordezkariak eta beren aitortutako izena dela-eta hautatutako kideak”

Zioak: Kultur Mezenasgoari buruzko Foru Legeak ematen dizkion funtzio berri eta garrantzitsuak direla-eta gaur indarra duen araudia aldatu beharra dago. Halaber, komeni da gaur egun daukan osaera birpentsatzea. Izan ere, horrela irits daiteke administrazio desberdinetako elkarte eta entitateetako ordezkarien eta Administrazioak izendatutako izen aitortuko kideen artean oreka duen kontseilu bat edukitzera.

61. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarrena quarter, gehitzeko zuzenketa. Kultur mezenasgoaren sustapena.

Hona testu berria:

“1. Kultura Zuzendaritza Nagusiak, legea onetsi eta gehienez ere sei hileko epean, Mezenasgoaren Gutuna egingen du, non alor horretako jokabide zuzenak sustatuko diren.

2. Halaber, egokitzen jotzen dituen baliabideekin, honako eginkizunak izanen dituen berariazko unitate bat jarriko du abian: sektoreari eta ustezko dohaintza-emaleei aholkua ematea eta mezenasgoaren kultura sustatzeko ohiko jarduketak diseinatzea.

Zioak: Legea onesteak mugarri nabarmen bat izan behar du Nafarroako kultur politikan. Halere, legea onestearekin, ez da prozesua amaitzen; izan ere, garai berri bat hasten da, non jokabide zuzenen kode bat beharko baita, bai eta Administrazioak pedagogia asko eta difusio eta sentsibilitate kanpainak egitea ere, mezenasgoaren kultura lagunduko duen guztia errazteko. Hortik heldu da interesa izatea ezarritako epe batean gutuna egiteko eta erabiltzaile eta herritar interesdunei arreta emateko prozedura artikulatzeko.

62. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Seigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

Kulturaren arloko eskumena duen departamentuaren erantzukizuna izanen da egiaztatzea, urtero, dohaintzak, erabilera maileguak edo komodatuak eta lankidetzak hitzarmenak egiaz erabili direla foru lege honen xedeekin –kultura sustatzekoekin, alegia– lotutako kultur proiektu eta jardueretan.

Nafarroako Gobernuak urtero jakinaraziko dizkio Nafarroako Parlamentuari foru lege honetan aipatzen den kultur mezenasgoaren emaitzak, honakoak ere zehaztuta: aurrera eraman diren proiektu edo jarduerak, onuradun izan diren pertsona eta entitateak, erabilitako mezenasgo modalitate desberdinen balorazioa eta aplikatutako zerga onurak”.

Zioak: 2. artikuluari aurkeztutako zuzenketari egokitzea eta harekin koherentea izatea.

63. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat, zazpigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testua:

“Zazpigarren xedapen gehigarria. Arartekoak urteko txostena egitea Kultur Kontseiluak emandako erabaki proposamenei buruz.

Arartekoak urteko txosten bat egingen du Nafarroako Kultur Kontseiluak planteatutako proposamenei buruz, 6. artikuluan ezarritakoaren babesean; zehazki, egindako proposamenak, baieztokoak zein ezeztokoak, arrazoizkoak diren aztertuko du, ezarritako irizpideak aplikatuta”.

Zioak: Erabaki proposamenak aztertzeko eta kontrolatzeko urteko errutina bat sortzeko, sistemaren gardentasuna eta sinesgarritasuna errazteaz gainera, baliagarria izan daiteke etengabeko hobekuntzarako ideiak bideratzeko.

64. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA
ETA PATXI LEUZA GARCÍA
 JAUNEK AURKEZTUA

Zortzigarren xedapen gehigarri berria gehitzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

“Zortzigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Kultura Kontseiluaren osaketa berrikustea.

Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kultura Kontseiluaren osaera berrikusteko proposamena aurkeztuko du, halako moduz non hobeki egokituko zaion parte-hartzea bideratzeko xedeari eta kultur sektoreen lankidetzari. Horretara, bere kideen artean, foru eta toki administrazioko ordezkariak egon beharko dute, bai eta beren izen aitortuari erreparatuta hautatutako kideak ere”.

Zioak: Lege honen garapenerako gako den organo honetan, Nafarroako gizartearen aberastasuna eta dibertsitatea hobeki jasotzea.

65. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
 AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarria. Nafarroaren berezko nortasunarekiko eta pertsonen oinarrizko eskubideekiko errespetua.

Edozein prozeduraren bitartez eginiko proiektu edo jarduketek ez dute eskubiderik izanen foru lege honetan aurreikusitako kenkariak eta murrizketak egiteko, baldin eta:

1. Ez badute errespetatzen Nafarroako Ikurrei buruzko 24/2003 Foru Legea eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko 9/2010 Foru Legea.

2. Indarkeria laguntzea, terrorismoaren, talde terroristen edo legez kanpoko erakundeen apologia edo haiei gorazarre egitea badakartzate.

3. Terrorismoaren biktimen oroimenari irain egiten bazaie, biktimen edo haien familien ospe txarra, gutxiespena edo umiliatzea dakarten ekintzen bitartez.

4. Oro har, indarkeria, generoko indarkeria, arrazakeria edo beste edozein motatako bazterkeria sustatzen badute edo giza duintasunaren aurkakoak badira”.

Zioak: Oinarrizko araudiak eta eskubideak aplikatu eta babestu behar izatea.

66. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA
 PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Testu bat gehitzeko zuzenketa. Xedapen gehigarri berri bat gehituko da.

“Xedapen gehigarria

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, kasuko urterako Nafarroako Aurrekontuaren % 1 erabiliko da, gutxienez ere, Nafarroako Gobernuaren Kultur Ekintzako Programetarako”.

Zioak: Baztertzaila dela jotzen dugu.

67. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
 PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Beste xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari Nafarroako kultur sektorearen egoerari buruzko diagnostiko bat igorriko dio, bai ikuspuntu ekonomikoa, bai kulturala aintzat hartuta”.

Zioak: Krisi ekonomikoko urteek eta Nafarroako Gobernuak garatutako kultur politikak eragin larria izan dute kultur sektorearen osasunean, bizitasunean eta biziraupen aukeretan, bere alderdi guztietan. Hori dela eta, egoera erreala ezagutu beharra dago.

68. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
 AURKEZTUA

Xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako Gobernuak, sei hilabeteko epean, behar diren neurriak hartuko ditu foru lege honetan jasotako onura fiskalak eta “Konpromiso Sozialeko Zigiluari” jada aplikatzen zaizkionak bateratzeko”.

Zioak: Saihestea kultur proiektuetan eta gizarte esparruaren artekoetan onura fiskal desberdinak egon daitezela.

69. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor bakarra gehitzeko zuzenketa. Ondasunen balorazioa.

Honakoa dioen lerrokada bat gehitzea:

“Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunak Baloratzeko Batzarra foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko epean eratuko da”

Nafarroako Kultur...

Zioak: Kontua da legean bertan arrazoizko epe bat ezartzea Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunak Baloratzeko Batzarra abian jartzeko.

70. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Foru Lege proiektuko azken xedapenetako lehenengoa aldatzeko zuzenketa.

«Azken xedapenetan lehenengoa. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzea.

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen manu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testu hau izanen dute:

Bat. II. tituluari IV. kapitulua gehitzeko zuzenketa.

“IV. kapitulua. Onura fiskalak aplikatzeko baldintza komunak.

48. artikulua. Onura fiskalak aplikatzeko baldintza komunak.

Titulu honetan aurreikusitako onura fiskalen aplikazioak honako baldintza izanen du: entitate onuradunek Tributu Administrazioari informazioa ematea, tributu-araudian ezarritako epeetan, jasotako dohaintzei eta ekarpenei buruz”

Bi. Hamaikagarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamaikagarren xedapen gehigarria. Foru lege honen zerga onuren bateraezintasuna.

Foru lege honen artikuluetan eta xedapen gehigarrietan araututako zerga onurak bateraezina izanen dira Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen foru legean zenbateko berberetara

rako ezarritakoekin. Ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Bateginaren 22 B) Bigarrena artikuluan ezarritako onurekin dagoen bateraezintasun hori aplikatuko zaie, halaber, Nafarroako Administrazio Publikoari edo irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuei Nafarroako Gobernuak ondorio hauetarako interes sozialaren deklarazioa jaso duten proiektuak egiteko dohaintzan emandako diru kopuruei”

Hiru. Hamabigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Babesletza kontratuek eragindako publizitate gastuen zerga onurak.

Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Bateginean, ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onartutakoan, 22 B) Hirugarrena artikuluan ezarritako zerga onurak aplikatuko dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu eskudunek interes sozialeko deklaraturako kirol, kultur eta gizarte laguntzako jardueren babesletza kontratuek eragindako publizitate gastuengatik ordaindutako diru kopuruetarako”

Zioak: Alde batetik, azken xedapenaren banaketa aldatzen da eta zenbaki kardinal arabiarren ordean letraz idatzitako zenbakiak jartzen dira. Hartara, foru lege proiektuko 1. eta 2. idatz-zatiak Bi eta Hiru idatz-zatiak izanen dira, hurrenez hurren.

Bestalde, Bat idatz-zatiaren bidez, 10/1996 Foru Legean IV. kapitulu bat gehitzen zaio II. tituluari, honako arrazoiak direla eta.

Foru lege honek honako baldintza hau ezartzen du dohaintzen, erabilera mailegu edo komodatuen eta lankidetzaren hitzarmenen bidezko onura fiskalak aplikatzeko: entitate onuradunek jasotako ekarpenei buruzko informazio ematea tributu-araudian ezarritako eredu eta epeetan.

Betekizun hori bera agertzen da maiatzaren 29ko 18/2013 Foru Legean, konpromiso sozialeko zigiluaren onura fiskalak aplikatzeari dagokionez.

Onura fiskal batzuen eta besteen artean bereizkeriako tratamendurik egon ez dadin, 2014ko zergalditik aurrerako eraginekin, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitako kenkariak honako baldintza izanen dute: egindako dohaintza edo ekarpenak agertzea entitate onuradunek tributu-araudian ezarritako eredu eta epeetan Tributu Administrazioari aurkeztutako deklarazioetan.

71. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetako bigarrena gehitzea aipatutako foru lege proiektuari. Azken xedapenetako bigarrena eta hirugarrena, berriz, hirugarrena eta laugarrena izanen dira hurrenez hurren.

«Azken xedapenetan bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren aldaketa.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), honela idatzita geldituko dira:

Bat. 18. artikulua, 2. idatz-zatia gehitzea. Artikuluko egungo edukia 1. idatz-zatia izanen da hemendik aurrera.

“2. Aurreko idatz-zatiko b) eta c) letretan aipatzen diren gastuen kenkariak honako baldintza bete beharko du: subjektu pasiboek aurkeztutako kuotak agertzea lanbide-elkargoei eta sindikatuei Tributu Administrazioari tributu-araudian ezarritako eredu eta epeetan aurkeztutako deklarazioetan.

Bi. 55.6 artikulua. Azken lerrokada bat gehitzea.

“Kenkaria egiteko baldintza izanen da subjektu pasiboek ordaindutako kuotak eta ekarpenak agertzea alderdi politikoei, federazioei, koalizioei edo hautesleen elkartei Tributu Administrazioari tributu-araubidean ezarritako eredu eta epeetan aurkeztutako deklarazioetan.

Hiru. 62.4. artikulua.

“4. Dohaintzengatik kenkariak.

a) Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitakoak.

Trataera bera izanen dute beren seme-alabek ikasten duten ikastetxe itunduetako irakaskuntza-kooperatibei subjektu pasiboek eginiko dohaintzek. Dohaintza horiek, betiere, aipatutako 10/1996 Foru Legearen 33. 41. eta 48. artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

b) Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen foru legean aurreikusitakoak”

Bat eta bi idatz-zatietarako zioak: Foru lege proiektu honek honako baldintza hau ezartzen du dohaintzen, erabilera mailegu edo komodatu

eta lankidetzaz hitzarmenen bidezko onura fiskalak aplikatzeko: entitate onuradunek jasotako ekarpenei buruzko informazio ematea tributu-araudian ezarritako eredu eta epeetan.

Betekizun hori bera agertzen da maiatzaren 29ko 18/2013 Foru Legean, konpromiso sozialeko zigiluaren onura fiskalak aplikatzeari dagokionez.

Onura fiskal batzuen eta besteen artean bereizkeriako tratamendurik egon ez dadin, 2014ko zergalditik aurrerako eraginekin, lanbide-elkargoei, sindikatuei eta alderdi politikoei ordaindutako kuoten PFEZaren kenkaria, PFEZari buruzko Legeko 18. eta 55.6 artikuluetan araututakoari jarraituz, honako baldintza izanen du: kuota horiek agertzea lanbide-elkargoei, sindikatuei eta alderdi Politikoei Tributu Administrazioari tributu-araudian ezarritako eredu eta epeetan aurkeztutako deklarazioetan.

Hiru idatz-zatirako zioak: Zuzenketak izaera guztiz teknikoa dauka, zeren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legeko Testu Bategineko 62. artikuluen 4. idatz-zatiaren testua koordinatu nahi baitu Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga pizgarriak arautzen dituen Foru Lege proiektuan ezarritakoarekin.

Foru lege proiektu honek araubide berezi bat txertatzen du PFEZean kultur mezenasgoa dela eta pertsona fisikoek aplikatzekoak dituzten kenkari buruz.

Hartara, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek eskubidea izanen dute zergaren kuotan dohaintzei eta erabilera-maileguei buruz egiten diren balorazioen 100eko 50eko edo 40ko kenketa egiteko, bai eta kultur mezenasgorako lankidetzaz hitzarmenen indarrez ordaindutako kopuruak eta egindako gastuak ere.

Soilik argitze xedetarako eta xede didaktikoetarako, komenigarria da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legeko Testu Bategineko 62.4 artikulua berariaz bil ditzala Nafarroako Foru Komunitateko kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen Foru Legean jasotako kenkarien aipamena.

ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

72. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko lehenengo eta bigarren lerroak aldatzeko zuzenketa.

Egungo testuaren ordez, honako testua sar-tzea:

“Foru lege honen abiapuntua da Nafarroako Foru Komunitatean kultura eta kultur sektorea garatzen laguntzea eta suspertzea, XXI. mendera-ko mezenasgo-jardunari buruzko kontzepzio bat sustatzearen bidez.

Kultur jarduera, ondasun eta zerbitzuek izaera sinbolikoa duten eta dimentsio hertsiki ekonomiko-aren aurrekoak izan eta hura gainditzen duten balio eta edukien eramaileak dira. Foru lege honek, 2006ko Kultur Gutun Iberoamerikarrarekin bat, bere egiten du aplikazio-esparruen zabaltasun-ean eta aniztasunean agirikoa den kulturaren ikuspegi integrala: arte- eta literatura-sormena, kulturaren industriak, egile-eskubideak, kultur ondare materiala eta ez-materiala, kultur eskubi-deak, kultura tradizionalak eta migrazio-popula-zioen kulturak edo kulturak nolako erlazioak dituen politika publikoetako beste esparru batzuekin: hezkuntza, zientzia, teknologia, generoko ekitatea, ingurumena, ekonomia eta turismoa.

Kultur Gutun Iberoamerikarrak nabarmentzen du kultur eskubideen aitortpena eta babes- ainar-ritzko izaera duten eskubideen moduan ulertu behar direla, halako moduz non pertsona guztiei bermatuko baitzaie beren sormen-gaitasunak burutzea, bai eta kulturarako sarbidea izatea, har-tan parte hartzea eta hartaz gozatzea ere. Hala-ber, azpimarra jartzen du administrazio publiko-aren erantzukizunean, herritar guztien kultur aniztasu-naren babes- eta sustapen-politiken formulazioari eta sustapenari dagokienez. Horregatik, gure ingu-ruko herrialdeetako Konstituzio gehienetan eta Unescok sustatutako nazioarteko konferentzietan kulturarako eskubidea jaso da. Hartara, gure Konstituzio-ko 44.1 artikulua kulturarako eskubi-dea jasotzen du herritar guztiontzat, bai eta botere publiko-aren eginkizuna dela hura sustatu eta babes-tea.

Kulturaren Agenda 21ek adierazten du kultur politikak interes publiko-aren eta interes pribatu-aren arteko, bokazio publiko-aren eta kulturaren instituzionalizatzearen arteko oreka puntu bat aur-

kitu behar dutela. Herritarrek, banaka, elkarrekin bilduta edo entitateen bitartez, aurrera eramaten dituzten ekimen autonomoak dira kultur askatasu-naren oinarria. Printzipio gidari horietatik eta egun-go aurrekontu-austeritate nabarmeneko eszenato-kitik abiatuta, foru legeak neurri pizgarrien multzo bat jartzen du abian. Kulturaren finantzaketan lankidetzaren publiko-privatuko ereduaren erreforma-tzeko neurriak dira, eta erregulazio berri hori auke-ra baten gisara aurkezten da, aukera bat sektore publiko-aren ahaleginari gehitzeko herritarrek eta enpresaburuek kulturaren sustapenean eta finan-tzaketan hartzen duten konpromisoa.

Azken lau hamarkadetan zehar, , arrastaka generaman defizit historiko-aren eraginez, sektore publiko-aren protagonismo-ko eginkizun bat hartu du kultur sustapenean, administrazio-aren aurrekontuez eta hainbat ekimenen bitartez. Hala eta guztiz ere, egungoa bezalako ingurune konplexuan, komenigarritzat jotzen da gizarte zibilaren partaidetza bultzatzea kulturaren sustapenean eta finantzaketan; eta, horretarako, beharrezkoa da arau mailako neurri batzuk hartzea mezenasgoa sustatu eta laguntzeko, haien gauzatzea birbalora-tzeko eta saritzeko eta haren onuradun diren enti-tate eta pertsona guztien kontrolean eta gardenta-sunean eragiteko.

Foru lege honek, bizi dugun globalizazio espa-rruan, balioan jarri nahi du mezenasgo-aren kont-zeptu berri bat, sektore publiko-aren eta sektore pribatu-aren arteko lankidetzaren handiagoa bideratu-z kultur proiektu-aren finantzaketan, partikularrek eta enpresek ondare-aren kontserbazioan eta arte-aren eta kulturaren sustapenean egindako ahaleginak aitortuz. Aldi berean, herritarrek, berdintasun-baldintzetan, kulturarako sarbidea izan dezaten administrazio publiko-ek daukaten erantzukizuna indartzen du. Aurrekontu publiko-aren ezinbestekoak dira kultur ondarea kontserbatzeko, azpiegiturak mantentzeko, arte-sormena sustatzeko eta kultur ekimenak laguntzeko”

Zioak: Testu berriarekin, lege proiektua kultur politiken inguruko azken testuetan eta testu aurre-ratuetan ageri diren printzipioetan ainguratu nahi da: Kultur Gutun Iberoamerikarra, Unescoren nazioarteko konferentziak eta Kulturaren Agenda 21.

Atal desberdinetan jasotzen da Kultur Gutun Iberoamerikarraren hirugarren printzipioa, gutun horretatik eratorritako kulturaren definizioa, eta nabarmentzen da kulturarako sarbidea dela-eta dagoen erantzukizun publikoa, sektore publiko-aren eta pribatu-aren arteko lankidetzaren esparru teori-koa kokatzeko.

Azkenik, azken lerrokadetan legearen asmoak laburbiltzen dira, eta aldi berean indartzen da administrazio publikoek kulturarako sarbidean eta haren finantzaketa publikoan daukaten erantzukizuna.

73. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko hirugarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“Banakakoek” hitzaren ordeztu “pertsonak” jar-tzea.

Zioak: Aurrekoak baino errespetu handiagoa erakusten duen kontzeptua da.

74. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko zazpigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Azken esaldiaren ordeztu, honakoa jartzea: “Egiazki, erantzukizun sozialaren printzipioa aipatzen da, mundu garaikideko mezenasen ezaugarri diren elkartasunaren eta laguntzaren balioen bitartez adierazia.”

Zioak: Esaldiak oinarri zalantzarriak dauzka, beste garai historiko batzuei hobeki erantzuten dietenak.

75. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari zortzigarren lerrokada gehitzeko zuzenketa.

Lerrokada bat gehitzea “baliabideak handitzea lortzeko” eta “Hortaz, foru lege honen” artean. Honakoa esanen du:

“Azken urteetan dohaintzetarako kenkari fiskalak areagotzearen aldeko apustua egin duten gure inguruko herrialdeek igoera aipagarria izan dute, esponentziala izan ez denean, kulturaren finantzaketa pribatuan. Presakoa da kultur adierazpenen aniztasunaren aldekoa den herritartasun kultural bat edukitzea.

Zioak: Eredu frantsesean gertatutakoaren konstatazio bat da. Eredu horrek, izan ere, legen honen edukiak inspiratu ditu neurri handi batean.

76. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko hamargarren eta hamabigarren lerrokadak aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen dute:

Foru legeak honako egitura du: hiru kapitulutan bildutako hogeitun artikulua, sei xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, indargabetzaile bat eta lau azken xedapen.

“II. kapituluan interes sozialaren deklarazioa egiteko prozeduraren oinarriko ildoak arautzen ditu, eta zehatz-mehatz ezartzen deklarazio hori egiteko kontuan hartu behar diren irizpideak. Ezartzen da, halaber, Nafarroako Kultura Kontseiluak interes sozialaren deklaraziorako eskaeraren gaineko ebaluazio loteslea eginen duela irizpide horietan oinarriturik, eta Kontseiluak berak deklarazioa emateko edo ukatzeko proposamena igorriko diola zuzendaritza nagusi eskudunari, proposamen horrekin bat ebazpena eman dezan.”

Zioak: Testuan lengoia inklusiboa erabiltzeko ahalegina egin den arren, zuzenketa honen bidez testua hobetu daiteke. Aldaketa honako honetan datza: “zuzendaritza nagusia” erabiltzea “zuzendaritza nagusia” erabiltzearen ordeztu.

77. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA **ARALAR-NAFARROA BAI** PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko hamaikagarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

Foru lege proiektuaren I. kapituluan zedarritzen da, modu zabalean, zein diren interes sozialaren deklarazioa jaso dezaketen kultur proiektuak eta jarduerak: zinematografiarekin, ikus-entzunezko arteekin, arte eszenikoekin eta musikarekin lotutakoak, arte plastikoak, liburuarekin eta irakurketarekin zerikusia dutenak, eta Nafarroako kultur ondare materialaren eta ez-materialaren sustapena. Kapitulu horrek zehazten du, halaber, zein pertsona eta entitate izan daitezkeen kultur mezenasgoaren onuradun. Horixe da, izan ere, foru lege proiektuaren berrikuntza nabarmenetako bat, kultur mezenasgoaren onuradun izan daitezkeen pertsonen eta entitateen esparrua asko zabaltzen

baita, oraingo egoerarekin alderatzen badugu, eta bertan sartzen dira administrazio publikoak eta jarduera artistikoren batean aritzen diren pertsona fisikoak. Azken kolektibo horri dagokionez (artista diren pertsona fisikoak), foru lege proiektuak, bate-tik, aintzat hartu beharreko jarduerak adierazten ditu eta, bestetik, esparrua mugatzen du, 200.000 eurotik beherako negozio bolumena duten pertsonak baizik ez baititu hartzen. Horrez gain, beste murrizketa batzuk ere sartu dira, agerikoa baita zailtasunak egon daitezkeela egiaztapenak egiteko eta simulaziorik gerta ez dadin familietan.”

Zioak: I. kapituluko 2. artikuluko 2. idatz-zatian arte plastikoak berariaz aipatzen diren arren interes sozialekotzat deklaratu daitezkeen kultur proiektu edo jarduerekin lotuta, haien aipamena egin beharko litzateke, era berean, proiektu horien zerrenda zioen azalpenean egiten denean.

Nafarroako kultur ondareari buruz hitz egiterakoan, kontuan hartu beharra dago gure kultur ondare horrek kultur errepertorio ez-material aberatsa daukala, zeina zuzenean baitago lotuta Nafarroaren bi hizkuntzen –euskararen eta gaztelaniaren– ahozko tradizioarekin. Hura ere interes sozialekotzat deklaratu daitezkeen proiektu eta jardueren atal bat izan daiteke.

78. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari hamaikagarren lerrokada gehitzeko zuzenketa.

“Jarduera artistikoren” hitzen ondoren “edo/eta kulturalen” gehitu behar da.

Zioak: Interes sozialekotzat deklaratu daitezkeen kontzeptua zabaldu nahi da.

79. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari hamabigarren lerrokada gehitzeko zuzenketa.

Honakoa dioen azken lerrokada bat gehitzea: “Nolanahi ere, interes sozialekotzat joko da eskatzen den kalitatea izan eta bere proposamen kulturean lotura eta kohesio soziala sortzen duen jarduera edo proiektu oro”.

Zioak: Helburua da lortzea interes sozialaren kontzeptua zabaldu izan dadila eta nahi dena sor dezala: parte-hartze pribatua.

80. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko hamalagarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Honakoa dioen testu berri bat proposatzen da:

Pertsona fisikoek eskubidea izanen dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuantan kenketa egiteko, dohaintzen, erabilera maileguen eta, lankidetzan hitzarmenen ondorioz, ordaindutako kopuruen eta egindako gastuen balorazioko lehen 150 euroen 100eko 90. 150 eurotik gorako zenbatekoek 100eko 40ko kenkaria izanen dute.

Zioak: Neurri hau pizgarri argi bat da gizartea identifikatuta sentitzen den kultur proiektuetarako dohaintzak emateko. Eredutik frantsesaren arrakastak zerikusirik handia du neurri honekin, hautatutako zergari buruz hitz egiteko aukera ematen duen neurrian.

Foru Ogasunarentzako kostuak, egindako simulazioen ondoren, onargarri gertatzen dira.

Espainiako Gobernuak erabiltzen dituen zirriborroak antzeko parametroetan mugitzen dira. Hori dela eta, ez litzateke logikoa izaneren Foru Erkidegoak kopuru murriztaileagoak planteatzea. Horrek aukera emanen lioke Espainiako aitzindaria izateko kulturaren arloan.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lan erreforma indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da Langileen Estatutuko 52. artikularen aldaketa ez dezan aplikatu.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2014ko otsailaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da lan erreforma indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da Langileen Estatutuko 52. artikularen aldaketa ez dezan aplikatu.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du Langileen Estatutuko 52. artikuluko d) atalaren aldaketa, Alderdi Popularraren gobernu zentralak bultzatutako lan erreformaren barnean.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du lan erreforma indargabe-

tu dezan, bereziki kontratua arrazoi objektiboen ondorioz amaitzeari buruzko d) puntuari dagokionez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehen azaldu den artikulua ez diezaien aplikatu, inolako kasutan ere, administrazioko lan-kontratudunei.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berak azpikontratatzeko dituen enpresei eragotz diezaien, dituen tresnak erabiliz, kontratua arrazoi objektiboen ondoriozko amaiera, 52. artikularen aplikazioarekin lotutako arrazoiak baitira, gertakizun arruntaren ondoriozko aldi baterako ezintasunari dagokionez.”

Iruñean, 2014ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Asociación de Cazadores Deportivos de Tudela” elkarteari esleitutako Montes del Cierzo eta Monte Alto ehiza-barrutien kudeaketari eta “Asociación local de cazadores y pescadores deportivos de Tudela” elkarteari ezarritako zehapena betetzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2014ko otsailaren 20an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela M.^a Carmen Ochoa Canela andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera “Asociación de Cazadores Deportivos de Tudela” elkarteari esleitutako Montes del Cierzo eta Monte Alto ehiza-

barrutien kudeaketari eta “Asociación local de cazadores y pescadores deportivos de Tudela” elkarteari ezarritako zehapena betetzeari buruzkoa zen, eta 2014ko otsailaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera
